

ZUBILLAGA BASERRIAREN GAINEKO MOZIOA

Uztaileko Udalbatzarrean naiz eta Zatarainen egiten ari diren lanetara tona handiko kamioien joan etorriak, Zubillaga baserrian eragiten ari zaiakion kalteen inguruan luze jardun, Udalbatzar honek ez zuen inolako erabakirik hartu oposiziotik aurkeztu genuen mozioaren inguruan.

Ordotik ordea, Zubillaga baserriko bizilagunentzat gauzak ez dira aldatu, GI-3832 errepidetik Zataraingo lanetara tona handiko kamioiak, Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako departamentuak emandako baimena baliatuz joan etorrian jarraitzen dute, errepidean eragindako kalteak konpondu gabe dirauten arren. Beraz errepidearen oinarriak eraikinean eragiten duen presioa, baserria kaltetzen jarraitzen dute. Baserrian azpiko pisura ura sartzen jarraitzen du erruz, euria egiten duen bakoitzeko eta esan bezala errepideak egiten duen presioaren ondorioz eraikinean azalduko zartadura eta hausturak bere horretan dira.


Uztailean Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako departamentuko kudeaketa eta plangintzako zuzendari nagusia Lasarte-Oriako Udal Gobernuarekin izandako bileraren berri eman zitzaigun Iraileko Hirigintza Batzordean. Alkatearen arabera bilera hartan Foru Aldundiko ordezkariak Zubillaga baserriak dituen kalteen inguruan errepideak zer ikusirik ez duela defendatu zuen eta ondorioz Foru Aldundiak erantzunkizunik duenik ukatu zuen.

Uztailetik hona Zubillaga baserriaren egoera larriari Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako departamentutik konponbiderik eman nahi ez zaiola ikusirik, eraikinaren eta bertan bizi direnen segurtasuna lehenetsiz, Lasarte-Oriako EH Bildu, EAJ-PNV eta Elkarrekin Lasarte Ori Podemos Udal Taldeek honako erabaki hauek onartzea eskatzen dugu:

1. Lasarte-Oriako Udalak ikusirik alde batetik Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako departamentuak Lasarte-Oriako Udal Gobernuaren ordezkariekin Uztailean izandako bilera batean Zubillaga baserrian GI-3832 errepidean 15 tona gairdiko kamioien joan etorriak eragiten dizkion kalteen inguruan bere erantzukizunei uko egiten jarraitzen duela eta beste aldetik Lasarte-Oriako Udalak Zataraingo garapenean duen ardura nagusia bere gain hartuta eta Zataraingo lanetara kamioien joan etorriak burutzeko GI-3832 errepideari bide alternatiboak eskaintzeko duen ezgaitasuna jakina izan da.

Udalbatzar honek egiten dituen eskaerei Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako departamentuak entzungor egiten jarraitu ezker, Lasarte-Oriako Udalak Zubillaga baserria babesteko GI-3832 errepidean egin behar diren lanak modu urgentean bere gain hartu ditzala eta berauek garatu ahal izateko egin beharreko izapideak burutu ditzala.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako departamentuari Zubillaga baserria babesteko lanak burutu bitartean, GI-3832 errepidetik Zataringo lanetara 15 tonaz gaindiko kamioiak joan etorrian ibiltzeko baimena bertan behera utzi dezala.
3. Zubillaga baserrian jazotako kalteak Zatarain Urbanizazioko lanak burutzeko tona handiko kamioien joan etorrien ondorioz izanik, eta baserria babesteko egin behar diren lanak burutzen ez diren bitartean, Lasarte Oriako Udalak Zataraingo lanak burutzeko baimena berrikustea, besteak beste Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa den 2012ko dekretua kontuan izan da eta etorkizunean onartu daitezkeen baimenak Zubillaga baserriaren segurtasuna kontuan izanda ematea.
4. Lasarte-Oriako Udalbatzarreko erabaki hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako departamentuari helaraztea.



EAJ
PNV
LASARTE-ORIA



Uxue
Loina

Firmado digitalmente por Uxue Loinaz
Fecha: 2021.11.05 09:30:00 +01'00'

Z

JON
ANTXORDOKI
REKONDO

Firmado digitalmente por JON ANTXORDOKI REKONDO
Fecha: 2021.11.04 10:39:07 +01'00'

David
Ares

Firmado digitalmente por David Ares
Fecha: 2021.11.04 15:58:00 +01'00'